

Numen "Suzko Hitzak"

Visit "[Suzko Hitzak](#)" on MotoLyrics.com

Argi dizdira aidean.
Eguzki Amandre Zuriaren altzean
Hegaka suzko anderea.

Mai naun,
Nafar Hegoaren magalean
Dantza dagien Mai.
Hire hitzak suzkoak ditun,
Suak guztia argitzen din,
Baita bizitzaren zokorik ilunenak ere.

Esaidan Mai,
Lurraren sekretu guztien berri
Dakian emakume ederra,
Ama Lurraren hauspoa
Astintzen duan andere gorena.

Non galdu genuen hire arrastoa?
Non naturaren mireshena?

Non izkutatzen dun euskaldunaren
Nortasuna pizturik mantenduko duen sua?

Ni neure herriko lurra naun,
Lurra dun naturaren azala,
Basoak ditinat gorputz,
Errekak odol,
Haizeak zerua behar dian bezala
Askatasuna dun nire arima.

Visit [Numen](#) page on MotoLyrics.com, to get more lyrics and videos.